

MIKEL IBARGUREN

BIDE BATEZ ESANDA



MIKEL IBARGUREN

BIDE BATEZ ESANDA

Utriusque Vasconiae

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Mikel Ibaguren

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2013ko apirila

ISBN: 978-84-939967-6-5

Lege-gordailua: SS-578-2013

Azalaren diseinua: Raphaële de Gorostarzu

Azaleko irudia: Raphaële de Gorostarzu

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

AURKIBIDEA

BART GAUEAN	7
IHES BETEAN	9
ESPEROAN	11
GARENAK GARA	13
ZURE ONDOAN	15
ARGI DA	16
GURE BAKARDADEA	18
ERDIAN	19
URRUNEKO HITZEZ	20
APURKA	22
HELDU EZINEAN	23
OKERRIK EZEAN	25
METEOROLOGIA POLITIKOA	27
NIRE HITZA	28
LITERALKI	29
GOGOAN HARTUZ	31
GARBI MINTZATUZ	33
LETRA TXIKIA	35
GALDEZKA	37
ESAN	39
GURE 90EKO OTSAILA	41
INOREN BEGIETARA	43
BEHIN BATEZ	44
BARREN URRATUAK	45
EZINBESTEZ	47
ELKAR ULERTUZ	49
LOAZ BESTE	51
HAUSTURAREN NONDIK NORAKOAK	52
BADA ITXAROPENA	54
ETABAR	55

NIRE BURUAREN BILA	56
ADOS	57
ALDIKAKO PENTSUA	58
ZUTAZ ARI NAIZELARIK	59
BIZI GARENO	61
GEUK OSATUTAKO MUGALDEA	62
ABERRI BESTERRI	64
HITZETZ BILUZTEN	65
BEDATSA	67
BADAKIGU	68
GURUTZEGRAMA	69
MAITASUNAREN PARADOXA	71
GAITZA DA	72
ZURI HOSKA	73
BIDE GALDUAK	74
HIRU LEZIO	76
ARRAZOIAK	77
ZEDARRIAK	78
GERO ETA OKERRAGO	79
BOTILAREN METAFORA	80
POSIBLE DA	81
AITAREN ETXEA	82
EGUNARI UKO	83
BELDURRA	84
EGUNEROKOAK	85
OBJETU GALDUAK	86
NON BADEN	87
BIHOZGABE	88
BI BATEN KONTRA	89
JE T'AI ME	90
SO	91
IDAZTEN	92
NIRE GOGOA	93
POEMA AUTOBIOGRAFIKOA	95
HORTIK ZABILTZA	97
NIRE ESKUETAN	99

BART GAUEAN

Nik maite ditudan hitzak sortzen dira zure ahoan
beldurraz haragoko irribarrea marraztu duzu
ezpainetan eta ez zara damu]
esnatu naizenean azken musuaren tatuaiak ikusi dut
zure lepoan]

sorbaldak nire begiraden adarbegiak dira
eskuon desirak bularretan urtu zaizkit
eta hego hautsiekin egin duzu ostadar lekutura
non zero urratu gabeak gordetzen diren
non sumendiak lehertzen diren

zure suzko ahotsak nire grinak erre ditu bederazka
gauaro egiten du eta izarrak ageri dira betazal
margotuetan]

amaigabeko hareatzen jabe egin garenetik
lorratz galduetan jarraitzen dugu oraino
insomnioaren amaraunean behelainoak saretu dira
eta lurak bere zauriak osatu ditu
euria ari du zure barrutik

gaua esna dago ilargiaren burmuinean
gure oinatzek elkar aurkitu ezin dezaketenean
zugana hurbilduko naiz denbora gelditu honetatik
zapaldu gabeko mortu honetatik
nire pentsamenduak bukatu gabe jarraitzen du zure
lientzoaren argitan]

zutaz mintzo naizelarik oihartzun batek inguratzen
nau ezinbestez]
ni naiz neure burua bertigo honen labarrean
kartzelatzen duena]
ni naiz ezerezaren aitzinean eztitzen den izaki
hauskorra]
arratsetan zure oroimenera urruntzen dena
ezagutzen dut itotzear den arnas sakon hori
zure fereka fosil isil bat da nire gorputzean
inor ez dabilenean begiratzeko duzun modua
ezagutzen dut]
horregatik esertzen zara goizero itxaropenaren
geltokian]
patuarekin borrokan aritu ostean
orain ilun da goizalbaren atarian
eta ahazturen leiho itxietan ausentzien garaia da
aspaldiko partez zurekin amets egin dut bart gauean

IHES BETEAN

Esan didate ez dagoela gureaz besteko etorkizuna
besterik]

ez dagoela geuk ibili beharreko bidea bezalakorik
eta hala ere egunak gure azalen mugetan berritzen
dira]

isiltasunaren jabe egin dira paisaje hormatuak
eta gureaz besteko banalerroak desegin direnean
zure ahotsaren oihartzun galdua naiz batzuetan
zure aldarrien gordina bestetan
baina gaur negarrez ikusi zaitut begiak amorruez itxita
nire bidaia imajinarioetan hegaz
oinetakoak erantzi eta oinuts hareatza urrunetan
honi guztiari zentzuren bat, zantzuren bat aurkitu
nahirik]

oroimenari ebatsitako lagunez gogoratu zara ezarian
eta orduz geroztik elkarri begira bizi gara elkarren
begiradetan]

geure beldur eta apetak gordean ditugula
gauza eder guztiak maitatzeko hautua egina dukezu
biderik eta zailena baina ederrena aukeratzu
inguratzen gaituen izarrarteak ez diezagun barne
lilura eragotzi]

zuk ez dakit baina nik nire bidea aurkitu dudala
ulertu dut]

leihoan beti egongo dela norbait hara egin dezagun
urrun diren zure eta nire gailur ezkutuak ikus
ditzagun]
desertua zeharkatu besterik ez zaigu gelditzen uneon
edo ihes egin haizearen kontra
bide berriak urratu, gure arteko amildegia neurtu
eguzkitik eguzkirakoa egingo dugu gorputzon
barrutiak osatu arte]
geure izate eta ekiteen jabe baino ez gara orain
nostalgiaren erreduak beste desira bat erre digu
azalean]
eta desorduetara abandonatu ditugu poz txiki eta
handiak]
horregatik nahi dut ortzemuga berrien bila egin
nire begietako uretan argia islatu
oraina biziz askabidean hegal egin
amodioak berritzen diren ezpain sutsuetan urtu
ihes betean noa inora heltzeko asmorik gabe

ESPEROAN

Beti gaude zerbait gertatuko denaren atezuan
zauriz osatutako kontinenteak atzean utzi ahala
inorenak ez diren orduetan elkartzen gara
edo larriminaren izaretan ozeanoz inguratutik gara
lokartzen]

ahuleziak jota dator argi berria gure leihotara
zure besarkada behar dut hutsune hau bete dezadan
ez da erraza infinituaren usurpaketa begietaratzea
bizieraren osinbeltzean gatibu gelditu zarela onartzea
baina ez-errealitate honetan bizitzeak arrisku hori
dakar]

geure joko-arauen mirabe bilakatu gara nahitaez
ebidentzia errazen mende ezarri gara
baina zure loezaren ur arreek esnatu egin naute
etsitu egin naute arratseko amets gaiztoek

orain inorenak ez diren orduetan jaikitzen gara
iluntzeko sutondoak itzali egin dira
eta iragana hondoratzen ikusi dute gure begiek
ez direla etorriko jakin arren beti gaude esperoan
atzera begiratu eginen dugu aintzina
non mugarri hauskorak, non sentipen galduak
biltzen diren]

denboraren errekak ekarriko ditu urrun dabiltzan
haiek]

ekaitz osteko eguzkia goaitatzen duten bakartuen
antzo]

besteak gara gu geure larruazalean
elkarrenganako bilaketa etengabea aurkitu ezinda
geuk amestu mundua besarkatu guran bizi gara

gauzak aldatze bidean doazen honetan ere
beti gaude zerbait gertatuko denaren atezuan
gure ahuldadeak aitortzeko adorerik gabe
zerbait gehiago egin genezakeen uste errotuarekin
urruneko portuetan begiratzeko dugula
norbait ikusteko esperantzarekin

orain kaligrafia berriarekin idazten dugu
etorkizunaren izena]

GARENAK GARA

1

Bete gabeko promesek ahazturaren bidea hartzen
dute]
eta fruta lizundu bat da nire pentsamendua natura
hilaren gainean]
garaiz heldu den euriak atariak busti ditu oharkabean
ilun dator eguna eta ispiluak ez du zure aurpegirik
ekarri]
denboraren artxibategian ez dut gauaren aztarrenik
atera]
baina nire ametsak transparenteak dira zure minak
bezain]

2

egiaztatu daitezkeen larriminak dira gureak
memoriarik gabeko eskuetan pilatu zaigu hitzon
hondarra]
urruneko lautadetan ageri den argiak ausentzia dakar
gure oinetara]
badakizu hemendik hur lekukotzarik utzi gabe egingo
dugula aurrerakoa]
itsasoa hor dela neguaren hotzean harrapatu rik

goizalba makal dator gure leihora
kaio bat dabil gure zeruak harilkatzen
oraina dugu bizibide

3

amorru handirik gabe eman dugu pausoa
ahalik eta gertuen egoten saiatu gara
baina konturatu orduko akorduak bere bidea egina du
ezin da oinazearen gordina edonola deuseztu
une gogoangarrienak baino ez ditugu gogora ekarriko
gure larritasuna desagertu ez bada ere
sentimenduek ez dute inoren alde egiten, ez dute
inoren aurka egiten]
gutaz mintzo dira besterik gabe

4

beharbada amodioa ez da hitz egokia
agian adorez bizi dugu geure beldur antzestrala
adiskidetasunaren premiaz ohartarazi nahi nizun
baina egin behar zena egin nuen eta ez da
kontsolamendu hutsa
besarkadak partekatzeak bizirik sentiarazten nauela
bakarrik dakit
eta galdezka dihardut zer galdu dugun edo zer ez
dugun galdu
zuk ere badakizu jendea bere zalantzekin, bere
egitekoekin doala kalean zehar
ni orain noan legez
esaidazu garenak izaten jarraitzeko badela leku bat
munduan]

ZURE ONDOAN

Ahapez mintzo naiz
neure buruarekin
edo nire bestearekin
barrunbeotan aztarka ari naiz
eta ulergaitz egiten zait aspaldion
jendeak daraman autismo soziala
jakitun naiz ongi egindako galdera batek
mila erantzunek baino
gehiago balio duela
zer egin daiteke hamaika bider
harri berarekin
estropezu egiten denean?
izan nintzena baino
izan nahiko nukeena dut
bilatzen neure baitan
isiltzen banaiz
isil nadin betirako
hitza dut lurperatuko
maite dut maite
egunsentiak begiak irekitzen dizkidanean
ondoan zu aurkitzea

ARGI DA

Argiaren eta isiltasunaren arteko hustasunean
denborak luze irauten du eta motz egunak
ez naiz ni izango zure aurka abiatuko dena
ez eta zu nire alde etorriko dena ere
nire harrotasunak ez du gupidarik nahi
askoz gutxiago kontsolamendurik
eginda dagoena eginda dago
nire ahoak ez du goragalerik ekarriko
zorrotzak dira besteen esanak nire akatsentzat
maiteminik gabeko maitasunik ba ote?
ezpainek ezpain bila dagite gau ilunean
begiak begi truk egiten du
bero da zure ametsen karobian
biluzia dut begirada
bihotzak baditu buruak ez dituen arrazoiak
ez dakit bestela egiten
gaur ez dizut azken egunotako arrastorik ekarriko
bidean barna noa neure itzalei segika
nuere buruaren polizoi bihurturik
gomuta guztiez harago egin gura dut

eguzkiak lurra argitzen duen lekuan aurki nezake
zure sentipenen mapa galdua

maite zaitudala diodanean
maite zaitudala esan nahi dut

GURE BAKARDADEA

Euri mehea dator nire oritzapenetara
kale bustiak zure urratsak deitoratu ditu
iragan denboraren arrastotik dator geroko urratsa
gogoan dut oraino zure etxerako bidea
batzuetan baietzak ezetz esan nahi du
batak ez du ordea bestea kentzen
zerumuga bakarra da
begiradak anitz diren arren
hemen nago neure bizipenekin
noizbait zuri kontatzeko irritsarekin
gatibu dut gogoa, gatibu amorrua
eta beldurrak bere horretan dirau
hitz egiten dizut hitzik gabeko eskuokin
isilik dago zure bihotz haragizkoa
aukera bakarra zeneukan eta joan egin zara
nirea da orain gure bakardadea

ERDIAN

Trena urrundu egin zen
eta bakarrik gelditu zinen
ametsaren erdian

esnatu egin zinen
eta bakarrik zeunden
geltokiaren erdian

URRUNEKO HITZEZ

Bidearen luzeak are urrunago garamatza pauso
bakartiez abiatzen garenean]
ez dakigu helmugarik baden so egin eta itsaso lehorra
ikustean]

larri gabiltza ezintasunaren arnasean itorik
bihar ausentziak gogoratuz osatuko ditugu biografia
ahulduak]

joan-etorrian dabilzan desioek garamatzate
ezinezkotik ezinezkora
bakarka handiagoa da desertuaren azalera, estuagoak
dira besarkadak]

batzuetan edonora egiten dugu geure gorputzetan
arrotz]

distantziak zenbat ahaztura dituen galdetzen didazu
zenbat egun behar diren izarretara egiteko
badakit gauzak ulertzeko eran dagoela gakoa
halako esan nahi eta ezin batean lokartzen garela
egunaren amaieran]

baina zuri helduta baino ezin nezake egin gauaren
ertzera]

egunen abiadurak ez digu pentsatzen utzi nahi
eta denok sentitu izan dugu noizbait norbaiten galera
konformagaitzak gara daukagunarekin, beti nahi
dugu gehiago]

etorkizuna ilusio optiko bat baino ez da
mundua ez da berdin ikusten erdigunetik edo
periferiatik]
baina zu eta ni ez garen lekukoak izan gara betidanik
garairik zailenetan ere geure premiak asetzen saiatu
gara besterik gabe]
neure buruaren naufrago bilakatu naiz
eta urruneko hitzekin osatutako poemak dituzu
hauek]
botila baten barruan sartutako help! kodifikatuak dira
gaitzetsi gabeko ilunabarretan irakur ditzazun
zein itsasotan itotzen dira gure ametsak?

APURKA

Apurka bada ere itzuli egin dira batzuk
eta guk galderak, urteak eta harresiak ditugu metatu
euri asko egin du harrezkeroztik
eta ama bakarrik dago zain etxeko atean
badator eguna zero beltzen atzetik
eta aitarik gabe gelditu gara
halako batean desegingo da lanbroa
eta gauak ez digu ikararik emango
eta hausturak osatuz joango gara
apurka bada ere

HELDU EZINEAN

Eguna hurbiltzen ari da ni nagoen lekura
goizari kafe usaina dario, oheak epel daude oraindik
ez dakit noiz arte iraungo duen adio honen

urrutiminak]

barnean ditut giltzapetu sentipenik gotorrenak
iragan denboratik datorren oihartzunak ez du zure

lurrinik ekarriko]

baina gu barnebiltzen gaituen bulkadak luze iraunen
du]

besarkadak bilduta zoriona opa niezazukeen arren
isiluneak bere lekua hartu du gure bizitzen

pasarteetan]

balizko porrotak galtzaile egin nau oraindik orain
baina beti izango dut babesleku bat ekaitzaren erdian
zu ez zauden oroimeneko atarian

hurrengo urratsak norantz bideratu pentsaka nabil
eta ezustekorik ezean

inoiz gauzatzerik izan ez genuen promesa hura

irudika nezake]

errealitateak mugatzen didan harresi honetatik
iratzarri gabeko orduetan ihes egin dezadan

orduan gureztat ez beste inorentzat izango da gaueko
argia]

betiko bide ilunetan gal gintezke
baina zeru urdinaren ertzetik eramango zaitut
itxaropena nonbait badela egiazta dezazun
ez nizun aukera hori ebatsi gura
-behinola egin nuen legez-
neure barne borroka mendekatu nahirik
galbiderik ez den aldetik noa
neure lekukotasuna aditzera emanaz
ikusitakoak ikusi ondoren
ez dugu iritsi arteko bakerik izango

OKERRIK EZEAN

Gezurrik handiena esan nezakeen edo egiarik
mediokreena]
erantzunik ez dudala aurkituko badakit
esaten dena baino gehiago dela esaten ez dena ere bai
ezkututzen dugun guztia gure barnean dabilen
magma da ordea]
hor dira pilatzen gure kontzientzia txarrak, erruak eta
banitateak]
askotan gauzatzen ez ditugun helburuak ezartzen
dizkiogu geure buruari
gertatuak gertatu hemen jarraitzen dugula bakarrik
dakit]
maiteminez, aurrenentipenez eta bihozkaidez berbetan
bagenekien ez zela sinesgarritasun kontua soilik
berbak aldatzen ditugu baina esanahi berdina
gordetzen dute]
arrazoiak desarrazoituz galera handienak ditugu
zerrendatzen]
gaur arte urrun zebilen hura hurbil sentitzen dugu
edo akordurik ezustekoenak pozten digu barrena
hausturak berrosatzeko ahaleginak egin arren
babesik gabe aurkitzen gara egunak inor gabe
datozenezan]
ez saiatzeagatik galtzen utzitako aukerez gogoratzen
naiz orduan]

badira izan egunen argitan galtzen diren asmoak
norabide jakin bat hartu arren inora ez garamatzaten
bideak]
norberak eraikitzen dituen barne-harresietan lekutzen
gara]
norberak ditu usteltzen bere usteak
pentsatzen duguna esateko elkor
gauzen zergatiak ulertzen saiatzeko uzkur
gu ez garen besteak ditugu begitan hartzen
elkarren erbestean bizi gara geroztik entzungor eginez
haiek banatzen dituzten mugek banatzen gaituzte gu
ere]
elkarbizitza diote baina bazterbizitza da
basamortuan putzuak badirela esan digute
baina ezagutzen ditugun itxaropen faltsuen osinak ez
dira gutxi]
isiltasunaren ozenak ez du hitz-etena ekarri
hala ere gezurrik handiena nahiz egiarik mediokreena
esateko gai gara]
eta garesti ordaintzen da odolaren mintzoa
bazterrotan]
koordinada berrietan bakea
gerrarik eza baino zerbait gehiago dela entzun dut
okerrik ezean baldintzapeko askatasunean jarraituko
dugu]
baldintzatutako oroimenak uzten digun arte

METEOROLOGIA POLITIKOA

Urte askotako laino beltzen ostean
inguruan dabilzan zurrunbiloek
aldakortasun atmosferikoa bultzatuko dute Euskal
Herrian]
ondorioz aldaketa haizea nagusituko den arren
norabide aldakorrekoa izango da berau
urteek aitzina egin ahala giro antiziklonikoa garatzen
joango da]
hodeiak eta ostarteak ez dira faltako
noizbehinka zaparrada batzuk tartekatuko badira ere
datozen hilabeteetako joera zein izango den
asmatzea ez da erraza izango
politikaren isobara mapak
etengabeko aldaketan baitaude
eta ez dute egonkortasunik adierazten
amaitu dira ekidistantziaren garaiak
aterkia beti eskuan izatea
komenigarria izango da
badaezpada ere

NIRE HITZA

Nire hitzak sinpletasuna du maite
ez du ezeren oztopo izan nahi
ez du inoren aurka egin gura
ez du atzera egiten

nire hitza nirea da zurea bezain
nire samina isurtzen du
nire poza du adierazten
edertasuna du bilatzen
bere egian da errotua

nire hitzak maitasuna du abaro
justizia du aldarri
pentsamendua legami

nire hitzak ez du inor zauritu nahi
ez da sastagai zorrotua
ez du gorrotorik biltzen
galdera asko ditu eta erantzun gutxi

nire hitzak ez du irainik zuretzat
isilik dago gogoaren atzean
errealitatearen ispiluan begiratzen du
nire hitzak zuregana narama beti

LITERALKI

Badakizu ni ez naizela
besteeek nitaz diotena bakarrik
zure begiradak ere
osatzen nauela ni neu izaten
joaten dena
itzuli egiten da noizbait
itzultzen dena ordea ez da
inoiz erabat itzultzen
urrun diren pausoak bere gogoan dabilta
batzuetan
ez dut gogoratzen euriaren izena
euria egiten duenean bakarrik gogoratzen naiz
baina batzuetan baino ez
hainbeste dira
beldurtzen nauten galderak
erantzun ezak ordea
beldur handiagoa ematen dit
leioa itxi dut
oroitzapenak sar ez daitezen
baina atea ixtea ahaztu zait
eta berandu da dagoeneko
hitzokin adierazi
ezin dena baino

hitzekin behar da esan
horregatik ditut gauzak esaten
esaten ditudan bezala
literalki hitz eginez

GOGOAN HARTUZ

1

Bete gabeko ametsen hilerriak ugaritu egin dira
eta izan ginenari eta izango garenaren arteko
distantziari]
deitzen diogu oraina

2

bakardadeari eta hauskortasunari aurre egiteko batzen
gara]
baina bereiztu ere egiten gara gutasunak sortuz
besteen ibilmoldeak zedarrirituz
eta elkarren ezagutzari maitasuna deritzogu

3

ez dagoen lekuan da une oro
garenetik izango garenera eramaten gaitu
etorkizun da gure begietan
errealitateari zentzua emanaz
eta utopia deitzen diogu geografikoki existitzen ez
den lekuari]

4

urtez urte desio mutu bat ernaltzen zaigu bihotzaren
ezpondetan]
garaipena ahoskatu orduko memoria zaigu
odolustutzen]
munduko kausa galdu guztien hartzekodun garelarik
ahaztura deitzen diogu ez gogoratzeari

5

horregatik zaigu gogoratzea ahaztu ezinezko ariketa

GARBI MINTZATUZ

Zure zain dagoen jendeak ez du luzamendutan ibili
nahi]
goiz bustiaren ondotik agertu den eguzki zuriak
ez ditu gure sentimenduak epeltzen
nagi dator eguna lanbrope etsitutik
zuk emandako arrazoi guztiek talka egin dute
nire burmuin mutuetan
eta pentsatu nahi nuke ez garela
bakarrik geldituko jende multzoaren artean
ez ditugula gerizpeak abandonatuko
noizbehinka gogoeta lauso honekin egiten dut aurrera
egunerokotasunaren aingura altxatzeko indarge
biharkora begira ezartzeko ahalegin tematia egiten dut
duda-mudazko olatuek kolpatzen nauten arren
honezkero malenkoniak agortu diren ustetan
ez daudenen ausentziarekin bizitzen ikasi behar izan
dugu]
non ezagutzen ez ditugun beldurren eremuetan
gure burutapen zurkaiztuak barnebiltzen ditugun
negu hurbilaren presentziak nahitaez baldintzatzen
gaitu]
barren husturik dauden gomuten bila egiten
dugunean]

oinezkoen artean nahastu eta bat gehiago egiten dugu
jendartea dugu osatzen bere alde on eta txarrekin
bere alde on eta txarrekin oroitzen dugu iragana

gure ahoskerak ulergaitz izan ez daitezen
errenditzen gara mintzaira honetara
zergatiaz arduratzen diren ideiak
atontzen ditugun bitartean
eskura ditugun egiantzak dirateke gure argudio
bakarrak]

momentuz ez dut beste argudiorik aurkitzen

LETRA TXIKIA

Letra txikiz nahi nituzke paratu esateko guztiak
norbaitek ez dela horretarako garaia argudia lezake
baina nora egin behar den jakiteko nola egin behar da
asmatu]

lehen ilunbeltza zen legez orain argira goaz
zuk irabazten duzunerako ni galtzeko prest naiz
ez naiz inola ere zure ezpainei ezetz esatera ausartuko
enbata sartu orduko babestu naiz zure desira gordean
onar dezadan hitz handiekiko mesfidantza gero eta
handiagoa dela]
zure ahotsa ez dela betikoa begitandu zait ametsez
bestaldera]
zuk lortzen duzun gauza bakoitzeko nik ez dudala
lortzen]

galtzen ez dakienak irabaz ote dezake inoiz
zure besoetan ez da gorrotorik sustraitzen
ez da zoririk biltzen
nik ere nahi dut arratserako zure ondoan lekutu
elkarrekin norabide bera hartu
bihar ere noraezen mendilerroak saihesten ahalegindu
garai eta leku berak bizi ditugun arren
oraingoz bideak ez dakigu norantz garamatzen
arrastoak ez dira berehalakoan ezabatuko

irabazle eta galtzailerik gabeko begiradak gailendu
bitartean]
egin beharko diogu elkarri so
eman beharko dugu elkarren berri
garai berria ez da halabeharrez egun berrien sinonimo
gertaera ezberdinen bilakaerak ez du ordea atzera
bueltarik]
gure betebeharra zein den beharko da zehaztu
horregatik behar zaitut ondoan inoiz baino gehiago
eskutik eskura egin dezagun
norekin eta nora egiten duzun jakiteko
orain bakeak behar ditugu egin gudan ez gaudela
ziurtatzeko]
mundua ez dago gure zain
gu gara letra txikiarekin idazten duen mundua

GALDEZKA

Ekaitzak zure zerupetik kanpo harrapatu ninduen atzo
eta garesti ordaindu dut nire axolagabekeria
orain ulertu dut zer den bidez kanpo ibiltzea

loaldia galarazi didan mindurak ez du atsedenic
hartzen]

norbaitek esan zuen gure egitekoa saihestezina dela
dugun arrazoa ere irabazi egin behar dela

iragan belaunaldietatik errautsak suspertzera gatoz
atzendu ezina den betebeharra konplitzeko
mutilatutako akorduak osatzeko asmoz

besteen berbak ederretsi genituen gure abestietan
gure horizonte galduak aurkitzen saiatu banaiz ere
errealitatearen legetara makurtu behar izan dut beste
behin]

agian ezagutuko ez dugun jendeak har dezake
ondorengotza]

trukean ezer eskatu gabe etorriko dira
egindako erretanak berdintzera

ez dakit noiz amaituko den ezinezko gatazka honen
soka luzea]

inoiz iritsiko garen kale antzaldatuena barrena egitera
gure kale-hizkera hartan mintzatuko garen berriro

ezin diot itxaropen mugatu honi gehiago eutsi
eta begietan sortu mugaleroak hara egiteko gogoa
piztu dit]
gauari galdezka ari natzaio eguna noiz den etorriko

ESAN

Esan baietz
arranguren azpilduretan ez diozula
nire ekaitzari sartzen utziko

esan berriz
eguna zeharkatu ostean
ez dugula jarraituko histura honekin

esan orain
ez etsitzeko, ez itotzeko
badela hamaika motibo

esan niri
elkar gorrotatzeko baino
elkar ulertzeko arrazoiak badirela

esan behingoz
ez garela gure esanen
gatibu geldituko

esan ezetz
ez dela hau betidanik
gura genukeen mundu modua

esan ozen
barruan daramazun irritsa
zorion betea dela

esan berdin

gurea ez dela planeten lerrokatze
perfektu baten emaitza

esan ordea
ondoan gehiago dugula
irabazteko galtzeko baino

esan baietz
oraingoan elkarren kontra baino
elkarren alde egingo dugula

GURE 90EKO OTSAILA

Oroit dezadan gure mai 68 hura
mila bederatziehun eta laurogeita
hamarreko otsail hura
gainezka egindako sentipenen uberan
utopiak gurtu genitueneko aldi ahaztezina
ezinezkoa posible zela oihukatzen ikasi genuen
gazte izatearen antsiak bizi gintuelarik
ubelduraz eginiko graffiti haien zentzua
argi gabeko kale ilunetan aurkitu genuen
uhalik gabeko beldurra jaun eta jabe zela
gaugiroen doinupean elkarretaratzen ginen
ukazioaren ukaezinezko jarrerak berrestu eta
poliziaren biolentziaren erresumenaren kontra egin
genezan]

oroit dezadan gure mai 68 hura
barrikadaz barrikada gurutzatu genituen behakoak
kantoiz kantoiz zeharkatutako kale estuetan gora
-si vis pacem para bellum aldarrikatuz-
nola ahoko irainen amorrazio betean bizi ginen
malkoen gaziak masailetan utzi arrastoak ezaba ezinda
mintzo isilez egindako iraultza txikien hauskortasuna
betikotu nahirik]
nola literatura ez zen literatura ikasten genuen

atxiloketa prebentiboei izkin eginez
-irabazi ala hil-
libertatea nola besarkatzen genuen gogora dezagun
oroit dezadan gure mai 68 hura
inolako irtenbiderik gabe nola egiten genuen
irtenbidera]
ekintza, errepresioa eta ekintzaren sarean
anbibalentzia oro baztertuz, errautsetatik berpiztuz
nola dena zen denona eta ezer ez inorena
oroit dezadan gure mai 68 hura
mila bederatziehun eta laurogeita
hamarreko otsail hura
denak berdin jarraitzen duela ikusteko
baina beste era batez

INOREN BEGIETARA

Inoren begietara dira eder zeru urdinak
distantziak erlatibizatu egiten ditu urruntasunak
eta ohartzeke udaberriak
zure ekinoziotik nire solstiziora egin du
menderik mende daramagu
gure arteko muga ikustezinak hautsi nahirik
baina gaur gauean esnatzen banaiz ez da
amesgaiztoek gatibu hartuko nautelako
mila urte igaro eta
geure bidean goaz pausoz pauso
oroimen urratuekin batera
inoren begietara dira eder zure begiak

BEHIN BATEZ

Behin batez bazen udako goiz bat
haize hozkirria eta zure aurpegia
bazen begirada baten instantea
itsasoaren gainean zeru kandyskiarra
Ziburuko kaian margolaria itsasargia margotzen
bazen igandero legez merkatua herriko plazan
eguzki errea, kresala eta antxetak
bazen kale bihurrien itzala, etxe typique bat à vendre
arratsaldeko enbata eta udatiarrak
bazen itsasturien kontaduria, tabako gorria
jendearen kalaka eta terrazak nonnahi
bazen zure gorputzaren hurbiltasuna
irri argia eta nire ezpainak
euri osteko lurraren usaina
aukera galduen damua
iragan hurbilaren zama astuna
bazen gauzetatik askatzeko gogoa
libre sentitzeko grina
eskuen sentipen aurreratua
urruntasunaren lekukotza
behin batez bazen udako goiz bat

BARREN URRATUAK

Inoiz ez da berandu egindako okerrak zuzentzeko
urteek aurrera egin arau lehenago errenditzen da
gorputza]
ez dira aldatzen garaiak, gu gara aldatzen
agian ez gara inoiz guk pentsatu uste duguna izango
besteek gutaz diotena baizik
askatasunak libreago egingo gintuelakoan geunden
eta orain damu naiz zuen eta gure artean
arrakala hau sortu izana
halere gehiago dira gogoratzen ez ditudan leku-izenak
gogoratzen ditudanak baino
urrunegi joan ginen beharbada
gure desio gordeenak aditzera eman genituen
betiko beldurrak ernaldu zaizkigu orain barren
urratuetan]
eta inor begira ez dagoen instante zehatzean
irriken gainbalioa baztertuz besarkatu dugu elkar
inork ez bezala osatu ditugu bakarrik igarotako egun
haien ebakidurak]
metaforen truke saldutako berbak ditugu aldeztan
gure bizipen sakonenak gailentzen saiatu garen aldiro
egin dugu atzerapausorik handiena
egon ez garen leku guztietan egon ahal bagintez
aldarri genuen mundu modua gauzatu ahal baledi

zuregatik ez balitz ez nintzateke honaino iritsiko
finean geure bertute eta akatsekin osatu errealitatean
bizi gara]

ez espero inork arinduko duenik gure zama
atzoko pentsamenduak izango dira gure biharko
zutabe]

horregatik bilatzen dugu gaurko egunen zantzua
horregatik atzamarkatzen igarotakoak
inoiz ez da berandu denborari aurre egiteko
baina jada ez nago inoren zain

EZINBESTEZ

Bidean gal ez nadin saiatuko naiz hemendik aurrera
amesgaiztoek gauaren azalera miatzen duten artean
begiak ireki eta hatsanga dabilen arnasa osatuko dut
egun berriak begirada elbarrien ezina dakar galeren
portura]
ezagutzen ez ditudan arrazoi ezkutuen jakinminez
ditut pausatuko itaun berriak
hurbil nahi dutenen urruntasuna jasanezina da
batzuetan]
eta gorputzari itsatsi izua erauzi ezin dudanetan
egonezina nagusitzen da nire indar telurikoetan
orduan etsaitzat hartutako nire burua galdezkatzen
dut]
galdutako gudaz mintzo dadin
luze ari ninteke gure artekoen eta besteenaz
erdietsi dugunaz eta erdietsi ez dugunaz
nahi izango genukeenaz eta dugunaz
gogamen urratuek utzitako arrastoa jarraitzen dugu
ordea]
eta hondamenaren erlaitzera hurbildu ahala
handitzen doaz arrakalak itsasoz bestaldera
abian garenez geroztik egiten dut ahalegin bete
ondobidean nahi dudan hori aurki dezadan

ELKAR ULERTUZ

Ez atzera, ez aurrerako egoeran
betiko aldebakartasunarekin hautsi genuen
zoritxarra behatzen badakigulako
ote gara zorionsu?
nik hitzemandakoa ahaztu nahi nuen
zuk berriz gogoratu
zergatien bila egin ordez
atzeraezintasunezko ondorioetan murgildu ginen
eta zuretzat babesa zena
niretzat itogarria zen
gauzak zail jarri zitzaizkigulako etsi genuen
ala etsi genuelako ziren zailak?
komunikazioaren inkomunikazioan
kondenaturik bizitzera ohitu ginen
eta askatasuna galdu genuen
segurtasunaren izenean
banaka ala binaka
egin genezakeen azken zatia
baina denboraren poderioz
konformagaitzak bihurtu ginen geure
konformidadean

halere egindako hautua
hoberena zela sinetsita gaude
agian zure errua zela badakit
akatsa nirea zela ordea ziur naiz
orain batak bestea
begiratzeko duen moduan ulertzen gara

LOAZ BESTE

Amorruaren unamak askatu ezinik
gelditzen zaizkidan hitz-hondakinak
biltzen dihardut loaz beste egin dudalarik

isiltasunak bion arteko espazioa bete du oharkabez
erlojuaren orratzak denbora du segundoka urratzen
hala ere gauzak nire neurrira ekarri nahi izan ditut
nahiz eta obsesioak setiatu egon

biharkoaren nondik norakoak pentsatuz
egin beharrekoaren bataz bestekotik
emango ditudan urratsen norabideak zenbatuko ditut
kale bustietan galduko naizelarik

(gure maluren ongizatean
ikusten ez diren kateek lotuago gauzkate
eta sakonean egunerokoak garamatza egunaren
hondarrera)]

orain errazegia litzateke existitzen ez den patua ukatzea
azalpen berrien aitzakian gure minera errenditzea
bero hodeien pean sukarturiko soinak
izara bustietan labainduko direlarik
sentipenen geometria ezezagunak marraztu genitzezke
eguteran diren itzalak urrundu
zure loaren hacker egin eta ametsak deszifratzeko
gaur zure gaua abordatzera noa

HAUSTURAREN NONDIK NORAKOAK

Arrazoi duzu
hausturaren kontzientziak utzi oinazea
hazten doan arrakala da zure barruan
goizak bakarrik aurkitu zaitu errezelen atzean
itzal bat zara argiaren errainuan
eta albo-kalterik eragingo ez duen maitakeriak
harrapatu zaitu zeuk ezarri zepoan
erregistro berririk asmatu ezean etena nagusitu liteke
gure artean]
baina bidean gelditu oinatzek erakutsiko dizute
nondik jo, nora egin]
ikasitako guztia desikasi beharrean gaude
halabeharrez]
borroka-zelai berriak ediren beharko ditugu
susmopean ez galtzeko]
ausart izateko modua litzateke adibidez lur ebakiak
uztea]
planteamendu berriekin aurrerago egin daitekeela
sinestea]
nork bere baitan duen askatasunik gabe ezin dela aske
izan ulertzea]
izate hutsa baino zerbait gehiago da bizitza bazter
lainotan]

eta edozein lekutan zaudela
ortzemugak hor jarraitzen duela ikusteak sosegatu
egiten zaitu]
denbora geldituaren ainubean minkideak hartu
dituzu gogoan
amorrak dizkizu barruak kiskali
eta zure tristuraren erroetan ez da ezer gelditzen
etortzearen denaren zain egotea da duzun aukeretako bat
zerbaiten alde ekitea dukezu bestea
iritsiko da halere mindurak gorputzetik erauzteko
ordua]
gauzak dauden daudenetan
ez gaude inori kontu eske joateko moduan
ahaztu ez baduzu gogoan behar zenuke
eguneroko gauza txikienei eutsiz egiten dugula beti
denak digula baldintzatzen nahi baino gehiago
nahi genukeenaren ordean ahal dugunarekin bizi garela
bizitzea merezi duen bizitza dela gurea
baina arrazoi duzu jende artean
gero eta bakartiago gelditzen ari garela diozunean

BADA ITXAROPENA

Sukarraldi korrosibo baten lehen abisuak
ataka gaitzean ezarri zaitu
izerdi hotza bizkarreko glaziarea zeharkatzera doa
eta loa galarazten dizun istilak
estalagmita bat sortu dizu buruan

hitz galduen korrespontsal egin zinenetik
ez zara lasai bizi
barealdian bizi garela esatea
azalpen errazegia ez ote den nago
baina badakit ez zarela hain erraz errenditzen
hain berehala sumintzen
porroterako prestatuak ez gaudenez
mingarriagoak direla galerak

nire egunak, zureak bezala,
errekan behera doaz ez-denboraren azkenera arte
irmo jarraitzen duzu elea bakan izan arren
ekaitzak izateko probabilitateak kalkulatu ostean
leihoak dituzu zabaldu parez pare
badaezpadako neurri oro alboratuta
bada argia gauaren muturrean

ETABAR

Zeure burutazioan errotuta
noraezeko ikusten zaituen arren
oraindik maite zaituela ohartzea
edo ulertzen saiatuagatik
ezin ulertuz ematen ditugun
urte guzti horien pilaketak oldoztea
desilusioa baino are okerrago
bizinahiaren aritmetika funtsezkoan
kalkuluek huts egiten dutela ikustea
zein arinkeriaz hartutako erabakiek
sagarroi bihurtutako inkontzientean
gerora ere nola eragiten duten sentitzea
larritasun guztien gainerik
formateatua eman zaigun errealitatea
usu horma gaindiezina dela aitortzea
finean amodio ukatuen atsekabeak
sortzen duen min itsua besarkatu
beste aukerarik ez dagoela etsitzea
itxurakeriak damaigun estalkia
egonezak, damuak, artegak
eta barruko elorriak eta erruak etabar

NIRE BURUAREN BILA

Guk nahi baino gaitzagoa izango dela egon ziur
orain ilunetik hitzak baino ez datozkit
buruhaustek ez digute atsedetik emango
baina zure itaunak ditut urtez urtez gordeko
zure kontrazeinuak behar ditut etxean sar nadin
iparrorratzik gabe euripean nabil
gogoak agintzen didana ezesten dit gorputzak
badakit neure aukerak izan ditudala
ezin direla atea betirako itxi
baina badakizu nire burua aurkitzeko
zure bila egin beharrea nagoela

ADOS

Ados, arrazoia ukan nahi nuen
eta zoriontsu izan
buruarekin maitatu nuen
bihotzarekin pentsatu
esna nengoela amets egin nuen
lo nengoela begiak ireki
hamaika motibo txar nituen aitzina egiteko
bakar on bat hemen gelditzeko
zure entzutea izan nuenetik
aldatu ziren nire konstanteak
barrura begiratu ezean
merezi ote aurrera begiratzea?
hauskorrak ziren nire desioak
aldiz gotorrek nire izuak
ados, zorientasunak ez zidan arrazoirik eman
eta arrazoiak ez ninduen zoriontsuago egin

ALDIKAKO PENTSUA

Aldi bakoitzak ekartzen du bere pentsua
etxeratu orduko neureganatu ditut azken esapideak
eguna amaitzean jabetu naiz
nahi izan ezkeru dena dugula eskura
onerako zein txarrerako prestatu beharra dagoela
anartean aurrea hartu ezin diegun
gertakizunek zailtzen gaituzte
edo iragan idealizatuaren bila egiten dugu
bertan gozo gelditzeko asmoz
argirik gabeko gauetan buruz dakizkigun
norantzak begiratzen ditugu
bedatsaren adiera denak ulertu nahirik
oheratzen naiz tarteka
gero eta argiago datorren goizalba
nondik datorren galdetu behar izan gabe
helduko da ezin esan guztien aldia

ZUTAZ ARI NAIZELARIK

Saihestezina den zure errealitatetik
igarotzen saiatu nintzen neure erara
zuk esandako bidetik zeharkatu nuen desioaren zubia
nituen debadioak uxatu eta zure euriteetan busti
nintzen]
zure ostadarra ikus nezan egin nion uko ia guztiari
eta plazerraren lautada kausitu nuen epidermisaren
azpian]

ez dago ezer aurkitzerik bilatu ezean
ezin eduki galtzen ez bada
ezin altxa erori ezean

orain ezin naiz zutaz mintzo ahapeka ez bada
halako batean ezagutzen ez ditugun gatazkek
itzartuko gaituzte gauaren erdian
nahitaez kausa-efektuen ondorio isilak gara
gogo arrotz batek inarrosi dit barrua
eta ni ulertzeko ahaleginak egin dituzun arren
ez da erraza izan bata bestearen larruak biluztea

ez dago jakiterik mezuak zer dioen
noren bihotzikarak lehertu diren
zenbat iraungo duen amets bahiturak

gauzak ikusteko modua gure egin genuelarik
azken unera arte irauteko promes egin genuen

niregandik zugana eta zuregandik nigana
bat egiten duten isurialdean itsasoratu ginen
hareatza galduen uste okerrak alboratu eta gero
ordudanik edertu nuen nire mundua zure ondoan
ordudanik berritzen ditut esperantzak itxaroan

ez dakit onik aterako garen
ez eta erdietsiko dugun ere
baina saiatu ezean galduak gara

BIZI GARENO

Ostiral gauean jasotako harriekin
zulatu ditugu oroiminaren kristalak
abenduaeren bihotzak ez digu odol berorik bidaltzen
eta egun hobeak iritsi ezean
gauden lekuan jarraitu beste aukerarik ez dugu
besarkaden semantika ezberdinak ikasi uste genituen
etxeko labe hoztuetan arragorik gabeko
amodioak ikusi ditugu
ezpainen trazu zehatzak marraztu ezinean
zure pauso galduak aurki nitzazke
baina gure elkarrizketak bakarrizketa bihurtu dira
ezingo genuke bestela egin
trenbide zaharretan gora igo
eta denbora gelditu zeneko unea oroituko dugu
bidearen hasiera gogora dezagun
bada bizitzarik bizi garen artean

GEUK OSATUTAKO MUGALDEA

Badakizu ilusioen gainbeheran erretena handitu
daitekeela]
hamabostean behingo telegramak kode ulertezinak
baino ez direla]
noizbait egin behar dugu gogoeta begiraden atzerritik
itsasoak esperantza galdu ahal baleza
desioen lurmutur bat geuregana genezake bihar bertan
gure neurrira jositako bakardadeak ez gaitzan gehiegi
estutu]
ziurtapen osorik ez izan arren arrazoiari arrazoa
kenduko diogu]
jaiduren urtaro ezberdinak margotuko
malkoen jabegoa suntsitu gure begietatik
ondokoarekin dugun ekidistantziaren arabera jokatu
gabe]
ispiluari lapurtutako aurpegia itzuliko diogu nahi
baduzu]
gauarena ez den amesgaizto bat dakarkizut eskuetan
orain]
haizearen oihartzunak beti dakar ahots galduren bat
eta lanbroaren maindirepean ederresten dudan
zeruertza dut ments]
halako batean behar zuen
nonbaitetik datorren trenaren hotsak harrapatu gaitu
ihesean]

espaloietako ibiltzerik gabe
egunak bere fokuak piztu dituenean
abandonatu ditugu itzalak, utzi ditugu abenidak
urtetako eraman ezina baino ez zaigu geldituko
bazter-hiri desolatuenetan iltzaturik
garai bateko ilunbe hartan bezala
desorduen itsasbeheran sartuko gara uretara
gure gorputz bustien ezpainak aurkitzera
ilargia lekuko bila dabil lainoen artean
eta gu bandera zuririk ez den itxaropenezko baladetan
geuk osatutako mugaldea baino ez gara
iraganak kendu ziguna emango digu geroak

ABERRI BESTERRI

Aberria diote batzuek
lurralde geografikoa
haurtzaro galdua

aberria diote
herria da gorputza
hizkuntza bihotza

aberria diote
nazioa osatzen dute
komunitatea

aberria diote
osatzen dugun
besterrari

HITZEZ BILUZTEN

Orain ilunabarra beste begi batzuekin ikusten dugu
bihotz haserretuen teoremak frogatu ahal izan ditugu
azkenean]
beti gordeko dugu biriketan azken arnasaren
hondalea]
irailaz geroztik tristurak zure aurpegia bereganatu
duenetik]
paisaia hustuetan ez dira hosto abailduak baino
pausatzen]
bagenekien haizebe honetan ez ginela seguru egongo
etxe guztietan argi bat egoten dela pizturik
badaezpada]
gure emozioen *comète* sareak ez zuela betirako iraungo
hurbilegi daude gaur gure gau eta egunak
-elkar ukitzen duten bi kale dira-
gogoan ditut aspaldiko lekugorde haien orubeak
non ezpainka, non eskuka egiten genuen
laztanei arkupe bat eman nahian
nola euriak zure izena idatzi zuen lehen aldiz
biharamunen eskuizkribuetan
ez geunden agurrerako prest
urruneko oroimen batek hartu eta eraman zintuenean
oraindik ere suak gure barrenak hartuak ditu

erabat aske ez bagara ere askeago geundeke elkarri
lotuta]
baina ni ez naizen beste norbaitek idatziko ditu
hemendik aurrerakoak]
zuk nora egiten duzun hara egingo dut nik ere
laino guztiak atzean utzita
baina orain uneoro pentsazen dut zurekin
hitzez biluzten naizelarik
egunero da egun berria egutegi zaharretan

BEDATSA

Ortzemuga urrunean urratu da argi printza
zure begietan ikusi ditut lehenbiziko ote-liliak
elurrak lurmentzen ari dira piskanaka
eta udaberria da nire biriketan

buruan badut nora joan baina ez dut biderik
igeri egin nahi dut eta ez dut itsasorik
eskuak zaizkit haragitu gorputz honetara
eta udaberria da nire hitzetan

GURUTZEGRAMA

Goitik behera aldeztuko ditugu maitasunak
erauziko gorrotoak, bilatuko sentipenak, pozak, irriak
telefonoaren haritik datozen mezuak zabalduko
ditugu]

albisteak entzungo, deiak egin, minak ezitu
guretzat gordeko ditugu kolore guztiak
orduak harrapatu denborari
galderak landatuko ditugu zaurien baratzetan
aberriak osatu, libertatea abestu, banderak haizatu
goseak dagoenari jaten diogu emango
aterbe bat eskaini desterruari
arrazoiei usteak kendu edo usteei arrazoia eman
erantzunak ditugu bilatuko harri azpietan
ateei giltzak eman gorpuak gorpuztu
orain, gero, bihar, etzi elkartuko gara goiz-txintaren
agurrean]

olatuak itsasoari itzuli, ekialdeko ekia gurtu
bertsoak idatzi, kaleak zeharkatu, gogaide izan
hori guztia egingo dugu goitik behera edo ezker-
eskuin]

arkatzak eskuan hartu eta isiltasuna ekarri gauari
begiak begiradari, behelainoa baso itxiari
ez gara gehiago izuetan esnatuko, hondartzak
abandonatuko]

urratsak emanaz aurrera egingo dugu ilargia lagun
dugula]
egunarekin etsaitu gabe zure iparraldea ahaztu gabe
udazkenak ditugu margotuko azalaren ifrentzuan
urrun dena hurbilduko, maite ditugunak zainduko
besteen ahotsak entzun lainoen bozgorailuetatik
bihar arte itxaron gabe zurekin afaldu, zurekin
oheratu]
beste arratsak ezagutu, beldurrik gabe galdu zure
besoetan]
elkarminean egingo dugu betiko hitzordua
estrata bustietan goitik behera eta ezker-eskuin
garaipen ikurrik gabe itzuli, bihotz hustuen leizeak
bete]
muga guztiak hautsi, elkarren konplize bihurtu
ezpal zaharrak bildu, lagun berrientzat izendaezinen
errolak egin]
leihoak zabaldu, maindire zuriak iseki, guda ondoko
atsedena hartu]
amaren etxera itzuliko garen unea elikatu
izuikarak ito ardo botiletan, boterearen erotika biluztu
azkenera arte lotu, kateak hautsi, ideiak partekatu
merezi ote duen galdetu gabe egingo dugu tratua
bertsio ofizialek diotenari itzuri eginez
aldapan gora edo maldan behera joango gara
gauero ipuin bat irakurriz geure buruari
begietara begiratzuz lokartuko gara
atseden hartuz bidearen erdian
goitik behera edo ezker-eskuin osatu
gure ibileren gurutzegrama biziak

MAITASUNAREN PARADOXA

Paradoxak dio maite baldin banauzu
eta maite nauzula egia dela baldin badiozu
orduan maite nauzula
ez bestela

GAITZA DA

Askotan eraman ezinak
baldintzatzen du gure artekoa
enkontru berriak ditugu finkatzen
hitz emate eta sentipen gordeen artean
hemen eta orain beti egongo da norbait
beste edozein baino bakartiago
gaurko eguna ahaztu nahiko duena
gurera hizkera gardenagoak ekarriko dituen
zer gertatuko bizi garen heinean
aldekotasunak defendituz eratuko ditugu ezponda
berriak]
giza kateez osatu oihuminak
ez dezan gure larrua alde besteratu
inork ez zigun esan erraza izango zenik

ZURI HOSKA

Jakin dezazun egiten dizut dei
haustura honen lurmuturretik
haragoko muga zeharkatu zenuen momentutik
ez baitut inolako seinalerik jaso
ez baitu faroak mezurik bidaltzen

jakin dezazun egiten dizut dei
izarrik gabeko gau hustuan
itzalak itoka azkentzen diren honetan
zure ahots galdua baino ez baitakar oihartzunak
itsas lainoak izarapean hartu baitu nire damua

jakin dezazun egiten dizut dei
atzerri da egunen bestaldean

BIDE GALDUAK

Oi gu hemen bidean galduak
ezin aurkituz norabideak
irtenbiderik bada ordea ezin saihesbiderik hartu
erdibideek ez dute balio
lasterbideak arriskutsuak dira
eta bidezko ez den oro nahi nuke baztertu
bidegabekeriak salatu
bidelagun berriak bildu
noraezean bada ere bide egin
handik edo hemendik
hartara edo hortara
atzerabideen ordeaz aurrerabideak saiatu
bukaerarik ikusi ez arren bidean joan
bideak garamatza, bideak gaitu ekartzen
barnebidean murgilduz
nire burutazioei bide eman nahi nieke
hausnarbideak ez dira hemen amaitzen
urratsez urrats dugu bidea urratzen
bideak gaitu urruntzen eta bideak hurbiltzen
ez dakigu helbideak beti hor diren
baina bidean gara, geure bidean
bide batez esanda
bidegabea ez baita inora iristen
orain historiaren bidegurutzera heldu gara menturaz

eta bakebidea dugu norantza
bidera noa, bidetik nator
bidean da nire gogoa
gu geu bideratu ezean ez baitago biderik
nahiago bidean galduak
ezen ez bidetik kanpo

HIRU LEZIO

Bat, etxetik irten baino lehen esan zidaten
zer zen bizitza
baina ahantzi egin dut
bi, gerora ikusi dut bizitza norabide bakarreko bidea
dela]
ez duela atzera bueltarik
eta ulertu dut
hiru, erortzeak zutik jartzea dakar berarekin
irakaspenik onena geure akatsek ematen digutena da
eta ikasi egin dut

ARRAZOIAK

Arrazoi ugari egon daiteke
munduko kausarik galduenetako batean idazteko
dena idatzita dagoela ere badiote
geure bizitzak izan ezik
baina errealismo guztien gainetik
zein kritika literario guztien azpitik
idazten jarraitzeko
arrazoi poetikoak ditut nik

ZEDARRIAK

Mugak du espazioa zedarritzen
presenteak denbora
heriotzak du bizitza zedarritzen
teoriak praktika
errealitateak fikzioa zedarritzen du
hitzak pentsamendua
egunero hasten delako
bukatzen da egunero eguna

GERO ETA OKERRAGO

Entzun behialako goratasunaren agonia
dekretu, kaleratze eta suizidioen luizia
paper gabe, etxe gabe eta ezergabetuen etsia
egun akorduaren alde zaharrear
hitzartzen dira baztertu ororen nahigabeak
jendarte postsozialaren dialektikak
merkealdian dira geroztik pentsaerak
bahituran mezu sozialak
ilunabar gorriak sutan dira
ezereza baino gutxiago ba al da?

BOTILAREN METAFORA

Botila erdi betea ikusten zenuen zuk beti
nik aldiz erdi hustua

gerora ohartu nintzen
botila metaforaz beteta baino ez zegoela

POSIBLE DA

Esan ezetz konformismoari
ukatu ukaezina
zaharrari berria gaineratu
aitzi egin logikaren ilogikari
astindu ondoezak
gezurrari egia atera
beldurrak uxatu
zalantzari irmotasuna erantsi
irabaziko ez badugu ere
ez dezagun galdu
esan baietz posible dela

AITAREN ETXEA

Betiko idealak galdu ote diren gaztigatu zenidan
elkartasunak zenbat kotizatzen ote duen burtsan
euriborretik babesteko nahikoa aterki ba ote dugun
bakardadearen produktu gordinak kezkatzen gaituela
ez dakigu esperantza galduko dugun
ala duintasuna salduko dugun metro karratuka
aspaldion desoseguak hartuak gabiltza
gurtzen dugun jainkoa da gure amilbidea
eta kapitalaren mende ezarri dugu gure biziera
orain bihotz desjabetuekin egiten dugu kalerakoa
aterberik gabe utzi dizkigute biharamunak
mugarriak gero eta handiagoak dira
loreak dizkigute moztuko eta berarekin udaberria
baina poetikoki zuzena izateko asmorik gabe
baikortasunez mintzo nahi nuke nire pesimismoaz
eta egoera guzti honen abdikazio esplizitua egin
nire aitaren etxea alokatzen dut

EGUNARI UKO

Gaurko egunak ez zuen etorri behar
egutegiaren larrialdiak ekarri du nire orainera
ez da maite ditugunen hutsunea betetzeko gauza
gaurkoa ez den beste edozein egunetan esnatu nahi
nuke]

ohea egin, gosaria prestatu, leihoak zabaldu
baina gaur ezin dut gaurko eguna zein den
esaten duten irratsaierik piztu
ez dut egunkaririk erosiko
ez naiz irtengo zer eguraldi egiten duen begiratzera
ez dut estuasunen mugetan ibili gura
are ez dut jendearen karobietan laketu nahi
ez naiz besteen hautsi-osoak ulertzen saiatuko
gaur ezdeus sentitzen naiz
eta batzen gaituzten hitzak baztertuko ditut
neure buruaren suminduran lekutu nahi dut
gaur ez dut erosketarik egingo
ez naiz garbituko
nire oinei ez ibiltzeko aginduko diet
gaur ez dut zer egun den ere gogoratu nahi
ez dut begirik irekiko, ez arnasik hartuko
gaur ez zuen argitu behar
egunari aurre egiteko ausardiarik gabe esnatu naiz

BELDURRA

Beldur naiz zure aldamenean
lorratz galdua ikusi dudanean
helbide gabeko jendea
jendetasunik gabe doala ikustean
iragan ezabatuen hondarretatik gatoz
urtaro azkenduen larrazkenean galtzen garelarik
eta beldur naiz lo arinaren ondotik
ez ote den horizontea irekiko begirada lehertuetan
betiko mugen ezinbestekotasunak
ez ote gaituen edonora eramango
argiaren behar larriaz ez ote garen itsutuko
beldur diot neure beldurrari

EGUNEROKOAK

Egunerokotasunaren biografiak idaztera noala
ulermen zaileko giza-harremanen kimikak ditut
artxibatu]
arbel beltzez egindako teilatuak elurrez estaliak daude
eta oraindik ez dut jakin zure ametsetako
aurora borealak non sortzen diren
zeri deitzen diogun arrazonamendu deduktibo baten
premisari]
ez dakit zenbat kontinente dituen pobreziak
aurrekari penalik ez duen norbait ba al dagoen hemen
edo noiz arte egon behar dugun etsaigoan betikotuta
ez dakit zergatik baina beti pentsatu izan dut
infinituak estropezu egiten duela ortzemugarekin
egia handiek gezur handiak ezkututzen dituztela
edo zero sabaia eskoratu beharra daukagula eroriko ez
bada]
ez dakit eguzki erlojuak zenbat digitu dituen
ez eta noiz amaituko dugun dikotomia zaharrekin
edota]
zenbat pisatzen duen
gero eta beherago bultzatzen gaituen aingurak
ez dakit eta ezjakintasunean eserita noala
bizikletaren katea atera zait plateretik

OBJETU GALDUAK

Antza denez objektu galduen txokoan agertu dira
behiala galdutako giltzak, ezkontza-eraztuna
BlackBerry beltza, txiskero gorria
eta zilarrezko lauburua

antza denez han agertu dira oroitzapen bakandu
guztiak]

begilagun hautsiak, autopsiarik gabeko denbora
kronologikoa]

zazpiak eta laurdenetan gelditutako ordularia
Purpaneko isiltasunaren arintasun jasanezina
zein Jon Anzaren pasaporte kadukatua

antza denez

NON BADEN

Bada beste planeta bat
non izarren hautsez egina den

bada beste bide bat
behelainoan galtzen dena

bada beste heriotza bat
biologikoa baino okerragoa dena

bada beste zero bat
non oxigenorik ez den

BIHOZGABE

Ihesbiderik aurkitu ezinda
bakarkako borrokan murgildu naiz
balizko errealitatearen aurka
nahasmen ezkutuen anbulategitik irten orduko
medikuak kardiograma bat
egiteko esan dit badaezpada
ez dut bihozgabe ibili nahi hortik zehar

BI BATEN KONTRA

Mundua bi eratara alda daitekeela diote
bakarka eraginez edo taldeka
maitatu ere bi eratan egin daiteke
norbere burua eta bestea maitatuz
horregatik gaude beti bi baten kontra
neure burua eta ni zure aurka

JE T'AIME

Denok dugu *capitale de la douleur* bat
argiak itzaltzen diren hiriburu apatridetan
biharamunez musuak eta aditz trinkoak dira nahasten
eta denok gogoratu nahi genuke
le temps des cerises galdu bat hor nonbait
iragan erraustu baten apalean
eta nik ere izkiriaturko dizut hitz ederrik
behar diren *ne me quitte pas* guztiak errepikatuko
nire ondoan egon zaitezen
udaberrien esperantoa ikas dezagun
euskaraz zaitut maiteko bertsio ofizialean
je t'aime, moi non plus guztiak ahoskatuko
nigandik zugana eginez joan-etorrian
zugandik nigana eginez etengabe
maite zaitut, *moi non plus*
je t'aime, nik ere ez

So

Gauari so nago
zaindari isil bat naiz
egunari so nago
lekuko isil bat naiz

IDAZTEN

Gau-tximeletak legez
nire hitzek bonbilaren argira
egiten dute behin eta berriz
pentsakor nago gau sargorian
hitzak barruan duen
pentsamendua idatzi nahirik
idatz dezadan beraz
bakartzearen deserri literarioan
asilo hartuz

inolako mapen beharrik gabe
ibilbideak berak erakusten du
nondik nora egin

isilpe honen erdian
amildegian behera doa
nire oldozpen betierekoa

ezinaren mugetan
galdutako sentipen asko
ez dira gehiago itzuliko

burua altxatu dut mahaitik
eta gau-enara bat ikusi
nire gailur onirikoan jolasten

NIRE GOGOA

Nire gogoak ez du itsasorik zure esperantzarentzat
horregatik ditut itotzen ilunabarrak argitu aitzin
ezinezko ametsetan basiturik nabilela
zure ezpainetan lekutzen den hitzaz nahi nuke jabetu
lautada gorrietako erresumak ezagutu
orainaren ispilu hautsiak metatuz joateko

nire gogoak ez du presentziarik zure ausentziarentzat
baina borroka galduetan bildutako odoletik dator
arrasto berria]
gauaren ordezt datorren goizalban esnatu zara beste
behin]

ahots galduen oihartzunetik hurbil
aurpegi ahaztuak gogoratu nahirik

nire gogoak ez du erantzunik zure galderentzat
eta iraultza lokartuetara itzultzen naiz esku isilon
bitartez]

oroiminen definizio zehatza aurkitu guran

nire gogoak ez du zauririk zure bihotzarentzat
aspaldiko lubakietatik dator libertatearen mezua
eta orain paisaia lausoetan besteen ametsak ditut
bilatzen]

nireek zentzua izan dezaten
ez nadin oinazealdien karkabetan gelditu

bailara ezagunetan behera egin dezadan
denbora koagulatu baino lehen

baina zinez

nire gogoak ez du akordurik zure ahazturarentzat

horregatik zaitut oroitzen

begiradaren orainaldian

POEMA AUTOBIOGRAFIKOA

Basamortuan legez nire bizitza oasi bat da mundualdi
honetan]

sentimendu gazi-gozoek ditut, aldiro kontraesanez
betea bizi naiz]

bakarrik egotea maite dut baina ez dut maite
bakardadea]

45, rue Evariste Baignol kalean bizi naiz

telebista, irratia eta mikrouhin zahar bat ditut
burua intentzios beteta irteten naiz kaleko deserrira
eta begiak ixtean ikusten dut gehien
itsasoak baretu eta aldi berean izutu egiten nau
bi haur ditut eta Partner gris bat
leihotik Bernadette erizaina eta Pantzo musikaria
ikusten ditut]

Robert langilea eta erretretan den Martine
arantzarik gabeko larrosik ez dagoela jakin nuenetik
gauetz esna egoten naiz eta egunez lo
denborari denbora eman zale naiz
lagunen laguntzat dut neure burua
baina askotan neu naiz neure buruaren etsairik
handiena]

hitza dut -René Char-en artxipiologo hori- gordeleku
eta bidea dut gogoko, bidea noranahi eta nahinondik
harago egiteko, etxera itzultzeko, zugana egin dezadan

batzuetan ez da erraza gauzarik sinpleena adieraztea
baina egunen joan-etorria dut maite, urtaroen arrasto
iragankorra]
maite ditut beti itzultzen diren elaiak, begiradak,
irriak]
gerokoak gero, iragana ez dago, oraina baino
barru urratuak eztarria erretzen dit aldiro
esaidazu zer ari zaren pentsatzen eta esango dizut
nolakoak zaren]
helburu bakarra dut jomuga ainitz
utopia bakarra hamaika amets
gehiago maiteko zintuzket baina bihotz bakarra dut
gaua dut nire hitzen lekuko
bihar beste egun bat izango da
eta ezer gertatuko ez balitz bezala egingo dut zure
sustraietara]
mendea amaitzen den arte iraun dezadan
ezer ez da ezinbestekoa bizitzea baino
zuk badakizu hainbeste

HORTIK ZABILTZA

Hortik zabiltzala esan didate
errepidea egunaren azkenean amaitzera doala
iluntzeak bere altzora eramango zaituela jakitun
kantu isil batek garai bateko ausentzia urratu dizu
honek ez dauka atzera bueltarik
eskua luzatzen jarraitzen duzu haatik
baina amaitu dira ezetz esateko aukera guztiak
aspaldian gorde zenidan bizipoza berri nahi nuke
galdutako aroei berriro eutsi
sentipenak mintzen diren oldozpenetan hankak busti
ditzadan]

hastapenera egiten ahaleginduko naiz
besteen ibiltzeetan zureak bilatzen ditudan jakiteko
urteen joanek zer kalte egin digun neur dezadan
ezinaren lohietan zenbat samin ezkututzen den konta
dezagun]

zure egonezaren aldarria zabalduko dut lau haizetara
izuaren mende ibili arren
ez naiz gehiago nire barreneko gelan giltzapetuko
ez dut ezikusiarrena egiten jarraituko
gogoeta lausotuen tartetik egingo dut zu zauden
bidegurutzera]

nahiz eta ez diren zure gomutak nire itsas labarrean
lehertzen]

ez daudenen itzalak ikustera ohituak gaude honezkero
hitzak zaizkit mutu sortzen hatz hoztuetatik
eta zalantzak ezin uxatuz nabil oinezkoen bideetan
barna]

badakit halere hortik zabiltzala ametsei sokatik eusten
egunerokotasun urria duzula gaitzesten
bezatu ezin diren grinena ahoskera daramazula ahoan

ez nuke zure poza trakestu gura
baina azal guztiek bere mamia duten legez
berba orok du bere esangura
ez dakit gauden honetan beste inorentzat lekurik
izango den]

zure urruntasunak etxerik baduen
baina gauza txikien unibertsoa osatzen dugunetik
kasiopeako izarrak ikusten ahal dira

orain badakit hortik zabiltzala
bihotzetik hurbil baina eskuetatik urrun
badakit non laketzen zaren eta non tristatzen
euria ari duela hor ere
autobusetako leihoetan gelditzen dela denbora

badakit hortik zabiltzala
hemen ez zaudenez geroztik

NIRE ESKUETAN

Denboran zeharreko gertaerek utziko gaituztenean
amaituko dira arrats urdinen kantu isilak
lanbropean abandonatu urratsak eramango gaitu
azkenera]
taupada geldoen erritmoak zuzenduko ditu egun
berriak]
akorde berean mintzo diren urtaroeak bat egingo dute
ahazturan utzi genuen udazken hartan
hirurohun eta hirurogeita bost egun igaro dira
baina atzo zela ematen du
guk baino ez dakigun lekutik helduko gara
orbel galduen bide bazterrera
zuhaitz biluztuen hezurak agerian geldituko dira
desira izoztuak zeharkatuko ditugarik
hainbeste egun oroitzuz eman ostean
albora utzi ditugu pentsamenduen galerak
etxera behar duzu orain, etxera behar dugu
izarren fonetika barneratu eta gero
gure ametsak besarka ditzagun
itxaropena elika ezagun infinituari begira
elkarri begira bizi gaitezen lorratz berriei segika
baina orain azkenengo aldiz idazten dizudan honetan
badakit zuk ere badakizula non diren nire gordelekuak
non deklinatzen ditudan sentipenak
non diren urtzen maluta betierekoak

zure ezpainenek berriro hartu naute esnaeren bilduma
osatugabeen]

orban berri bat ikusi dut zure azalean
hitzak solte datoz desertuetako alfabetoetatik
eta euriak busti ez dituen nire gauak gorde dituzu
zeurekin]

aspaldian ez da trenik iritsi zure geltokira
baina ez nuke zure norantza galdu nahi
denok dugu norantza bat
denok dugu burdinbide zaharren oroimina
biharko kroniketan ausentziarik ager ez dadin
zure ondoan egongo naiz urrunean ere
nire eskuetan zaude
baina ez zara nire gatibu

EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO
BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*
10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*
12. Txomin Peillen: *Jan Dabrowski.*
13. Mikel Ibarguren: *Bide batez esanda.*